

**IKASLEEKIKO  
ARRETA ETA JARRAIPENA**

# 1.-MARKO OROKORRA: JARDUERA ILDO HONEN DEFINIZIOA

## JUSTIFIKAZIOA

Ikaslearekiko arreta eta jarraipen pertsonalizatua da emaitzetan eragin gehien duen faktoretako bat, euren (ISEK) indize sozio-ekonomiko eta kulturala kontuan izanik, espero daitekeen baino ebaluazio diagnostikoaren emaitza hobea duten ikastetxeetako jardunbide egokiei buruzko ikerketaren arabera.

Hamaika Esku programako ikastetxe guztietan antzematen dira ikasleen berriazko premiei erantzuteko zailtasunak (gehienen familiek ISEK baxua dute, kultur-aniztasun handia dago eta ikasketetarako motibazio- eta interes-falta dute). Oro har, euren ikasketa-emaitzak eskasak dira, eta baita egokitasun-indizea ere (errepikatzaile-kopuru handia)

Zenbait kasutan, batik bat, gutxiengo etnikoekin zerikusia dutenetan, absentismo-arazoak gertatzen dira. Bestalde, ikasleen artean gabeziak nabaritzen dira hizkuntza-gaitasunari eta bereziki euskarari dagokionez (lehen edo bigarren belaunaldiko familia etorkinak, beste erkidego batzuetatik etorritakoak, horien etxeko hizkuntza ez da euskara, ezta mugitzen diren testuinguru sozialarena ere,...).

Berdinen arteko harremanari dagokionez, zenbaitetan gertatzen dira hezkuntza-arreta eskatzen duten hainbat arazo, jokabide horiek birbideratu behar baitira, bizikidetzakaltetzen dutelako.

Diagnostiko horrek azaltzen du ikasleari lehentasunezko arreta eta modu pertsonalizatuan eskaintzeko premia, ikaslearen premiei erantzun onena eman eta bere gaitasunak goreneko mailaraino garatze aldera.

Ikasle bakoitza da hezkuntza-sistemaren eta ikastetxeen ardatza eta izateko arrazoia. Hezkuntza Politikan zein ikastetxe bakoitzean hartzen diren erabakien helburuak pertsonaren dimentsio guztien erabateko garapena lortzea izan behar du, ikasketa akademikoetan arrakasta lortzea ere barne dagoelarik. Funtsezkoa da, beraz, ikastetxe bakoitzean erabakiak hartzea, ikasle bakoitzari beharrezkoa duen erantzuna bermatzeko eta ikasketen maila hobetzen laguntzeko.

## Programaren HELBURUAK jarduera-ildo honetan:

- 1.- Ikasle bakoitzaren premiei eta itxaropenei erantzunik onena emango dieten orientabide akademiko eta pertsonala bermatzea
- 2.- Hezkuntzarako eskubidea bermatzea, Oinarrizko Hezkuntzako etapan eskolaratuz (absentismoa errotik desagerrarazi).
- 3.likasleen aniztasunari erantzuna emateko eta banakako arreta bermatzeko estrategiak eta prozedurak bultzatzea, ikasle bakoizak ahalik eta ikasketa-emaitzarik onenak lor ditzan.
- 4.-Ikasteko motibazioa, ikasteko autonomia eta ikasleen parte-hartzea sustatuko dituen estrategiak eta prozedurak bultzatzea.

## LORPENAREN ADIERAZLEAK

- 1.- Ikasturte/etapa bukaerako ebaluazio-txostenak barne hartzen ditu hezkuntza-prozesua gidatzeko orientabideak.
- 2.- Eskola-absentismoa gutxitu egin da
- 3.-. Estrategia eta prozedura berriak abian jarri dira, banakako arreta eta aniztasunararen erantzuna hobetuz.
- 4.- Estrategia, jarduera eta prozedurak abian jarri dira, partaidetza, motibazioa eta ikasteko interesa sustatzeko
5. Hizkuntza-, matematika- eta gizarte- eta herritar-gaitasunei dagokienez, emaitzak hobetu egin dira (% zehaztea gomendatzen da).

## JARDUERA ILDO HAU DEFINITZEN DUTEN ALDERDIAK

- 1. TUTORETZA**
- 2. PRESENTZIA, BERTARATZEA, DBH-REN AMAIERA ETA ONGIZATEA ETA SEGURTASUNA**
- 3. ANIZTASUNARI ERANTZUNA, BANAKAKO JARRAIPENA BERMATZEKO**

#### 4. IKASLEEN PARTE-HARTZE ETA MOTIBAZIOA

#### 5. LORPENA ETA IKASKUNTZA BERMATZEA

### LANDU BEHARREKO ALDERDI NAGUSIEI BURUZKO PROPOSAMENA. LORPEN MAILEN MAILAKETA EDOTA LORPENAREN ADIERAZLEAK

<b>ALDERDIA</b>	<b>LORPEN MAILAK</b>
<b>1. alderdia</b>  <b>TUTORETZA</b>	<b>TUTORETZA EKINTZAREN PLANGINTZA</b> 1.- Badago tutoretza-plana, eta, gutxinez, Orientazio Sailaren eta tutoreen arteko bilerak jasotzen ditu. 2.- Ikastetxeak bere tutoretzako ekintza-plana eguneratuta eta martxan dauka. Irakasmila bakoitzean garatu beharreko edukiak, helburuak, ekintzak...zehazten ditu. Irakasle guztien tutoretza-lana, eta tutoretza-jardueraren hiru arloak hartzen ditu (banakako, taldekako eta familiakako tutoretza) 3.-Tutoretzako Ekintza Planean, taldekako tutoretza-saioen plangintza eginda, banakako tutoretza aurrera eramateko orientabideak zehaztuta, eta familiekin egin beharreko elkarriketak eta talde bereko irakasleen arteko bilerak zehaztuta daude. 4.- Tutoretzako Ekintza Planaren berrazterketa sistematizatuta dago.  <b>TUTORETZA EKINTZA</b> 1.-Tutore-lana batik bat familiekin eta gainerako profesionalekin duten harremanera mugatzen da. 2.- Tutoretza-saioan talde-dinamikak gauzatzen dira sistematikoki. 3.- Tutore-lanak ikaslea norbanako gisa aintzat hartzen du, berdinen arteko taldean duen lekuari begiratzen dio eta familieko harremana ere kontuan hartzen du. Ikasle guztiek banakako jarraipena dute eta familia ere parte hartzen du. 4.- Ikastalde batean eragina duten irakasle guztiak talde horretako ikasleen tutoretzan inplikatzeko dira.  <b>ORIENTAZIOA</b> 1.-Orientazio-zerbitzuak arreta eskaintzen die bulegora jotzen duten ikasleei. 2.- Ikasle guztiek jasotzen dute orientazioa, bai ikasturtearen hasieran sartu denak, bai beranduago hasi denak, bai irakasle-taldeak hala eskatuta jaso behar duenak. 3.- Banakako orientazioa sistematizatuta dago. 3.-Ikasturtearen bukaeran ikasle bakoitzak orientazio-txosten bat dauka.
<b>2.alderdia</b>  <b>PRESENTZIA:</b> Bertaratzea, puntualtasuna, Ongizatea eta segurtasuna DBHren amaiera	<b>BERTARATZEA</b> 1. Ikastetxeak ikasleen hutsegiteen eta puntualtasun-falten jarraipena egiten du. 2.-Tutoreek jarduerak gauzatzen dituzte, hutsegiteak eta puntualtasun-faltak aurreikusi eta nolabait konpontzeko. 3.- Ikastetxeak badu prebentzio-plan bat, eta familiekin eta ikasleekin parte-hartzen dute plan horretan. 4.- Absentismoa ehuneko ... gutxitu edo errotik desagerrarazi da.

	<p><b>PUNTUALTASUNA.</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1.- Ikastetxeak puntualtasun –falten erregistroa eramaten du.</li> <li>2.- Puntualtasun-faltak saihesteko jarduera- eta neurri-protokoloa prestatu da.</li> <li>3. Irakasle guztiek ezagutu eta erabiltzen dute jarduera-protokoloa.</li> <li>4.-Puntualtasun-faltak ehuneko... gutxitu edo errotik desagerrarazi dira.</li> </ol> <p><b>PRESENTZIA</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1.-Zailtasunak dituzten ikasleek hezkuntza-laguntza dute, gela arruntetik kanpo eskuarki (edo ohiko eskola-orduetatik kanpo).</li> <li>2.-Zailtasunak dituzten ikasleek behar duten laguntza jasotzen dute ikasgelaren espazio naturalean (% *koa da ikasle guztien presentzia gela arruntean).</li> <li>3.- Ikasgelako dinamikan parte hartzea (Ikasleek ikaslagunei laguntza emateko parte hartzen dute)</li> <li>4.- Ikasgelako metodologiak aniztasunarekiko arreta errazten du (metodologiak, kooperatibak, proiektuetan oinarritutako lana, jarduera bereizgariak,...)</li> </ol> <p><b>IKASLEEN ONGIZATEAREN BERMEA</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1.- Jasotako kexak ezagututa jokutzen da.</li> <li>2.- Zenbait jarduera egiten dira ixiltasun-legea hausteko eta ikasleen ongizate-maila hautemateko (taldeko izatea, tratu txarreko egoerak, ...)</li> <li>3.- Gatazkak era baketsuan ebazteko prozedurak erabiltzen dira.</li> <li>4.-Ikasleen asebetetzea: ikastetxean seguru, onartuta eta gustura daudela, eta berdinen arteko gatazkak gutxitu egin direla adierazten dute ( ikasleen ikastetxearekiko gogobetetasun-mailaren %)</li> </ol>
<p>3.alderdia</p> <p><b>ANIZTASUNARI ARRETA, BANAKAKO JARRAIPENA BERMATZEKO</b> (ikasteko prozesuarena: curriculum-garapena eta garapen pertsonal, sozial eta</p>	<p><b>IKASTEKO ZAILTASUNEI AURREA HARTZEKO NEURRIAK</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1.-Irakasle guztiek laguntzendute ikasleen abiapuntua zehazten, ikasleen hasierako ebaluazioa eginez, beren gaitasunak baloratu eta “itxaropen handiak” sortzeko.</li> <li>2.- Ikasleen ezaugarriak kontuan hartuz (ikasteko erritmoak eta estiloak) neurriak abian jartzen dira.</li> <li>3.- Irakasle guztiek parte hartzen dute, ikasteko erritmo desberdinei arreta jartzeko.</li> <li>4.- Zenbait estrategia erabiltzen dira, hala nola, ikaste-kontratua, zeinak ikaslearen ikaskuntzetan ikasleak berak eta haren familiak ikastetxearekin duten erantzukidetasuna sustatzen duen.</li> </ol>

<p>emzionala) eta prozedura eta tresnak aspektu hauentzat: hasierako ebaluazioa, jarraipena, portfolioak)</p>	<p><b>IKASLEEN PREMIKIN BAT DATOZEN ERANTZUN BEREIZGARRIAK</b></p> <p>1.- ICPk jasotzen ditu ikastetxeko ikasleen kulturetako edukiak. Programazioetan jasotzen dira aniztasunari erantzuteko hainbat jarduera, baliabide metodologiko eta ebaluatzeko tresna desberdin.</p> <p>2.-Badaude curriculum-egokitzapenak, ikasle bakoitzaren premiei begira daudenak:CNE, curriculum zabalkuntza, kultura-edukiak curriculumean sartzea, malgutasunerako neurriak ...)</p> <p>3.- Badaude neurri diferentzialak: Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Proiektua (HBSP); Curriculum Diseinua; Hezkuntza Osagarria; hautazko jakintzagaiak, ikasleen interes desberdinei erantzun eta ikasteko erritmo eta estilo desberdinak errespetatzen dituztenak, maximoari uko egin gabe, eta norbait atzean geratzen dela antzematen bada, berehalako arreta bermatzen duena.</p> <p>4.- Ebaluazioa egiteko prozedura eta tresna anitz eta askotarikoak erabiltzen dira. Ikasgelaren errealitatea kontuan hartuta prestatzen dira, aukera-berdintasuna bermatuta egon dadin estilo eta posibilitate desberdinentzat.</p> <p><b>IKASLEEN BANAKAKO JARRAIPENA</b> (ikasteko prozesuarena: curriculumaren garapena eta garapen pertsonal, sozial eta emozionala)</p> <p>1.- Ikastetxeak badu Hezkuntza Indartzeko Banakako Plana (HIBP) ikasleei euren interesen arabera laguntzeko, behar diren irakasleen partaidetzarekin. Plan horrek prebentzio-neurriak hartzen ditu barne.</p> <p>2.- Ebaluazioa egiteko prozedura eta tresnak ezartzen dira: hasierakoa, jarraitua, portfolioak eta amaierakoa.</p> <p>3.- Ebaluazioetako emaitzak kontuan izanik, erabakiak hartzen dira. Zailtasunak hauteman bezain laster, ikasle bakoitzarentzat egokienak diren neurriak martxan jartzen dira.</p> <p>4.- Ikasle bakoitzarentzat abian jarritako neurrien azterketa eta berrikusketa sistematizatzen dira, eraginkortasuna baloratu eta ikaskuntza hobetzeko egin beharreko aldaketak egiteko.</p>
---	---

<p>4.alderdia</p> <p><b>IKASLEEN PARTE HARTZEA</b></p>	<p><b>IKASGELAN PARTE HARTZEA</b></p> <p>1.-Ikasleek klasean parte hartzen dute (galdetuz, proposamenak eginez, elkarlanean ...)</p> <p>2.-Ikasleek, euren ekimenez, beste ikasle batzuei laguntzen diete.</p> <p>3.- Ikasleak parte hartzen du ikasgelaren jarduera-arauak eta berdinen arteko bizikidetzarako arauak zehazteko eta euren ordezkariak hautatzeko.</p> <p>4.-Etorri berriak, txikiak, irakurketa-lagunak... direnentsat tutorearen irudia (ikasle eta tutoreen %), eta gatazkak konpontzeko bitartekariarena daude.</p> <p><b>IKASTETXEAREN JARDUERAN PARTE HARTZEA</b></p> <p>1.- OOGn badira ikasleen ordezkariak (ikasleen ordezkariak duten ikasgelen %)</p> <p>2.- Ikasgelan badaude ordezkarietarako irudiak (delegatuak, ordezkariak ... )</p> <p>3.-Ikasleek ordezkariari beraientzat interesa duten gaiak proposatzen dizkiete (jarduera osagarriak, eskolaz kanpokoak, instalazioen erabilera,...), eta hauek gai horiek planteatu eta informazioa bueltatzen dute.</p> <p>4.- Ikasleek modu aktiboan parte hartzen dute ikasgelaren eta ikastetxearen dinamikan (bizikidetzarako arauen prestaketa, bizikidetzaren behatokia,...)</p>
<p>5.alderdia</p> <p><b>LORPENA ETA IKASKUNTZA BERMATZEA</b></p>	<p><b>ESKOLARAKO ETA IKASKETAK EGITEKO MOTIBAZIOA</b></p> <p>1.- Atazak planteatzerakoan interes, gaitasun eta ikasteko era guztiak kontuan hartzen dira, ikasleentzat eskaintza askotariko eta erakargarria eginez.</p> <p>2.- Badira zenbait estrategia, ikasteko eta prestakuntza eskuratzeko desioa areagotzen dutenak, ikasteko autonomia sustatzen dutenak eta egindako aurrerapenen jakitun izatea ahalbidetzen dutenak.</p> <p>3.-Aurrerapenak aintzat hartzen dira, eta ikasteko aukera gisa erabiltzen dira hutsak. Ikasleen ekintzarako gogoia pizten da, eta ikasteko giro interesgarri eta aberasgarriak sortzen dira.</p> <p>4.- Ikasle bakoitzak bere ahalmenak ahalik eta gehien</p>

garatzea da helburua; horretarako askotariko jarduerak eskaintzen dira: jarduera jakin bat gauzatzeko posibilitate desberdinak eskaini, gaitasun-maila altuena eskatzen duenaren hautua bultzatuz. Ikasketak suspertu

**OINARRIZKO GAITASUNAK ERDIESTE**

1.- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna; ahozkoa eta idatzizkoa; euskaraz, gaztelaniaz eta euskaraz.

Ahoz eta idatziz komunikatzeko gaitasuna bat dator % ikasleren hezkuntza-mailarekin.

2.- Matematikako problemak ebazteko gaitasuna bat dator beraren hezkuntza-mailarekin.

3.- Gaitasun digitala bat dator beraren hezkuntza-mailarekin.

4.- Gizarterako eta heritartasunerako gaitasuna (bizikidetza, gatazken konponketa, ... )

**(barne-ebaluazioak kontrastatzeko edota egiten laguntzeko probak egin litezke, eta dagozkien mailak ezarri)**



## 2.-IKASTETXEARI LAGUNTZEKO TRESNAK

### 2.1.- PROPOSAMEN METODOLOGIKOAK:

#### PRINTZIPIOAK

##### 1.- Ikaslea izaki global gisa

Ikaslearen alderdi guztiak (intelektuala, afektiboa, emozionala, soziala ...) beren globaltasunean hartzea dakar. Horrek, alde batetik, globaltasuna errespetatzen duen planteamendu metodologikoa eskatzen du; Haur Hezkuntzan metodologia globala izango da modurik egokiena ikaskuntza-esparruak lantzeko, eta baita Lehen Hezkuntzako hasieran, nahiz eta beranduago, etapa horretan bertan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diziplinarteko planteamentuetara joko den; beraz, gaitasunen garapenaren aldeko apustu garbia izan daiteke ikaskuntza-proiektuekin lan egitea. Beste aldetik, ikaslearentzat errespetuz eta txeraz beteriko tratua ekarriko du, sentitzen, pentsatzen eta bere buruarekin eta besteekin harremanak dituen pertsona baita.

##### 2.- Ikasleak berezko interes eta motibazioak dauzka

Esan nahi duena ikastetxea, ikasgelak eta zerbitzuak antolatzea... interes eta motibazio desberdinei erantzuna emateko.

Horretarako lehenik eta behin beraren interes eta motibazioak ezagutu behar dira. Balio handiko uneak dira horietan tutoretza-saioak eta familiekiko topaketak. Eta ez da ahaztu behar arlo/jakintzagai bakoitzean beraren interesei erantzun behar zaiela. Ikaslea ezagutzearen adierazle egokia litzateke irakasleek ikasleari gehien interesatzen eta motibatzen duena zer den jakitea. Ikaslearen interes eta motibazioak ezagututa, horrek eragina izango du zenbait aspektutan: espazioen antolaketan eta espazioen apainketan, baliabideen eskaintza zabalean, metodologi-proposamen askotarikoetan, era askotako jarduerekin batera, eta, azkenik, osagarritzko eta gelaz kanpoko jardueren eskaintza zabalean eta, ahal den neurrian, hautapen-espazioarenean.

##### 3.- Ikasleak berezko ahalmena du (itxaropen handiak dituela esan nahi duena)

Pedagogi-ikerketak zehaztu egin zuen printzipio hau, "Pigmalion efektua" edo "bere baitan betetzen den profezia" gisa definituz. Norbaitengandik zerbait positiboa espero badugu, espero duguna betetzeko joera badago. Hori dela eta, irakaslea hobekien definitzen duen xehetasun bat ikasle bakoitzarekiko itxaropen handiak izatea da, horixe baita ikasleengandik onena ateratzeko

modu bakarra. Horrek badu eragina, harreman pertsonalean, izan ere gutaz irudi ona duten pertsonekin hobeto sentitzeko joera dugu. Era berean, eragina du lorpen eta ikasketetan, zeren, zerbaitek ez badu emaitza onik ematen, irakasleek gauzak egiteko modu berriak ikertuko dituzte, etekin hobekak lortzeko.

#### 4.- Ikasleak behar du bera hezitzen dutenen jardueran irizpide koherenteak izatea

Gizaki bat garatzeko orduan bete behar den oinarrizko premia bat zentzua aurkitzekoa da. Behar hori betetzeko, jarduteko arau koherenteak behar dira eta horrek ez du zerikusirik pertsonen animo egoerarekin edo zoriarekin. Horregatik du izugarritzko garrantzia ikasleen familiekin harreman erraza izateak eta horrezkero jarduteko arau koherenteak finkatzeak. Era berean, funtsezkoa da irakasle guztiak koordinatzea arau eta esku-hartzeko proposamenak finkatzeko. Arau eta proposamen horiek lagungarriak izango dira ikasleentzat, adin goiztiarrenetatik hasita, beraien hezkuntzan eta garapenean eragina izango duten funtsezko alderdiak identifika ditzaten.

5.- Ikaslearen goreneko interesa bilatzea da edozein esku-hartzearen hasiera "Mutikoaren, neskatoaren eta nerabearen goreneko interesa" kontuan hartzeak esan nahi du edozein esku-hartzearen helburua printzipio hori bermatzea dela. Hori dela eta ,edozein analisi egiten denean eta erabakiak hartzen direnean ezinbestekoa da ikasle bakoitzaren garapena izatea, aukera berdintasunean, jarduteko hastapen oinarrizkoa, eta hori lehenetsi egiten da irakslen, familien eta erakundeen beste interes batzuen gainetik.

## HAUTATUTAKO LAN - ALDERDI NAGUSI BAKOITZAREN INGURUKO ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK

### 1.-TUTORETZA:

Ikastetxeko irakasle guztiek tutore-lana egiten dute. Izan ere, denak arduratzen dira espektro osoa hartzen duten neurriak hartzeaz, arruntenetatik berezietara, ikasle guztiek euren gaitasun eta ahalmenen arabera aurrera egin dezaten.

Ikastetxean finkatuta dagoen tutoretza-planaren arabera, tutore bakoitzari dagokio, zehazki, banakako tutoretza, taldekako tutoretza eta familiekiko harremana garatzea.

## **2.-PRESENTZIA: BERTARATZEA, DBH-REN AMIAERA ETA ONGIZATEA ETA SEGURTASUNA:**

Ikasleak ez dira topatzen bereizitako espazioetan, baizik eta ikasgelaren espazio naturalean. Presentziak eskolan jarraitzea ere esan nahi du. Horri dagokionez, aipatzekoak dira puntueltasuna eta bertaratzea baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila guztiak amaitzea ere. Aipatzekoak dira, gainera, ikastetxean seguru, onartuta eta ongi sentitzea ere.

## **3.-ANIZTASUNARI ARRETA JARTZEA, BANAKAKO JARRAIPENA BERMATUZ:**

Aniztasunari kasu egingo zaio bere alderdi anitzetan: kultura-aniztasuna, gaitasunen aniztasuna, aniztasuna sexu-identitate eta orientazioan, genero-aniztasuna, baliabide sozioekonomikoen aniztasuna, interes-aniztasuna ...

Irakasmaila / etapa bakoitzaren hasieran, hasierako ebaluazioa egingo da. Ebaluazio horri esker errazagoa izango da ikastalde zehatz bakoitzari programazio didaktikoa egokitzea.

Etengabeko ebaluazioak ikasle bakoitzarentzat egokienak diren neurriak martxan jartzea ahalbidetuko du, zailtasunak hauteman bezain laster. Azkeneko ebaluazioaren ondorioz, erabakiak hartuko dira: promozioa, titulazioa, PIRE (Partnership for International Research and Evaluation), NCE, errefortzua ...

## **4.-IKASLEEN PARTE HARTZE ETA MOTIBAZIOA:**

Parte-hartzeak bi esparru hauek eratu behar ditu: alde batetik, onarpena, begirunea, ikasle bakoitzaren identitatea preziatzea eta honen ongizaterako kezka eta, bestetik, besterekiko eta besterentzako harremanetarako begirunea eta kezka (adiskidetasuna, laguntasuna eta berdinen arteko laguntza).

Horretaz gain, ahalbidetuko da ikasgelaren kudeaketa demokratikoan eta ikastetxearen bizitzan parte hartzea (lagundu egingo dute ikasgelaren jarduera-arauak zehazteko, berdinen arteko bizikidetzaz zehazteko, ordezkariak hautatzeko ... )

## **5.-LORPENA ETA IKASKUNTZA BERMATZEA**

Ikaskuntzak edo lorpenak diogunean aipatu nahi da ikasle guztiek, goreneko mailara eramandako posibilitateen neurrian, eskola-curriculumari dagokionez espero izatekoak diren emaitzak lortzeko premia. Kontua da ekitate-maila handiak eta bikaintasun-maila handiak bilatzea.

## 2.2.- AUKERATUTAKO JARDUERA-ILDOAN EDO ALDERDIAN LANA PLANIFIKATZEKO ORIENTABIDEAK:

### **Orientabide orokorrak:**

(Ikusi plangintzarako txantiloia, ebaluazio diagnostikotik eratorritako hobekuntzarako esku-hartzeko plana egiteko proposatu den txantiloia antzekoa izango dena)

**HELBURUEN PROPOSAMENA:** lortu nahi duguna zer den argi eta garbi deskribatzea.

Ikasleen emaitzen hobekuntzara orientatuak. Zenbait helburu planteatu daitezke ikastetxearentzat, maila jakin baterako, ikastalde jakin baterako bai eta ikasle jakin batzuentzat ere.

Proposamena osatzeko, helburu bakoitza lortzeko lagungarri diren gaitasunak adieraz daitezke.

Ez ahaztu aniztasunerako arreta.

**ADIERAZLEEN PROPOSAMENA:** (Helburua lortu dela adierazten duten jokabideak, produktuak ... deskribatu, zuzenean behatzeko modukoak badira. Ikasturtearen bukaeran behatu nahi litzakeena)

Helburuak ikasteko prozesuarekin lotuta badaude, ikaslea egongo den testuinguruan helburuak lortu dituela baloratzeko modukoa izan behar du berak egiten duen jarduerak.

**EKINTZEN PROPOSAMENA:** (Helburuak lortzera bideratu behar dira ekintzak. Ikasleen gaitasun eta posibilitateei egokituak izan behar dira. Askotarikoak, erakargarriak, akatsaren erabilera hezitzailea, era askotakoak, zailtasunaren arabera mailakatuak, guztien arrakasta ahalbidetuko dutenak, ikasleen aniztasunari egokituak ... izan behar dira).

**TRESNEN PROPOSAMENA:** (-lan-tresnak /- jarraipena egitekoak)

**BALIABIDEEN PROPOSAMENA:** garrantzi handiko kontua da zer baliabide beharko diren aurreikustea.

**EBALUATZEKO PROZEDUREN PROPOSAMENA:** konklusioak atera, irakasteko eta ikasteko prozesuekin eta ikasleen emaitzekin zerikusia dutenak. Hobetzeko proposamenak, konklusio horietatik eratorritakoak. Emaitzak espero zirenak ez badira, ez etsi. Prozesua aztertu, zergatiak bilatu, berbideratu, saiatzen jarraitu.

Ez ahaztu **ARDURADUNAK** izendatzea, jarduerak martxan jartzeko eta horien antolaketa eta jarraipena egiteko.

### **Etsenpluak**

**Helburua:** Euskarazko hizkuntza-gaitasuna hobetzea, Lehen Hezkuntzako 4. mailan.

**Adierazleak:**

- Ikastetxearen ebaluazioan, arloa gainditzen duten ikasleen kopurua % 20 gehitzea.
- Diagnostikoaren ebaluazioan, erdiko mailan % 10 eta maila aurreratuan % 10 igotzea.

#### **Ekintzak:**

- Arloko programazio didaktikoak berraztertzea (helburuak eta ebaluatzeko irizpideak argi eta garbi zehaztea)
- Bestelako ekintzei buruzko proposamena irakasleekin koordinatzea.
- Proiektuen metodologia barneratzea (ipuin-kontalariak Haur Hezkuntzako ikasleentzat, eta beste ikastetxe batekin trukea, maila bereko ikasleekin jokatzuz: gutunak bidaltzea eta guztien artean adostutako bizikidetza-jardunaldi batean topo egitea).
- Ikasteko denbora luzatzea (auzoko elkarteekin koordinatuta aritzea, euskarazko ekintzei buruzko proposamenetarako).
- ...

#### **Arduradunak:**

- 4. mailako tutorea
- Ikasketa-burutza

#### **Baliabideak:**

- Programazio didaktikoak.
- Koordinaziorako astia, irakasleen artekoa, trukea egiten duen ikastetxearekin eta kanpoko eragileekin.
- Ipuinak
- Teknologia berriak (emailak, bideoak .... bidaltzea)...
- ...

### **2.3.- PRESTAKUNTZARAKO PROPOSAMENA**

Jarduera-ildo honetan irakasleen prestakuntza bat etorri beharko litzateke ikastetxe bakoitzaren premiekin. Dena den, oinarriko prestakuntza bermatu beharko litzateke, alderdi hauei dagokienez:

#### **1.- Tutoretza**

1.1.- Banakako tutoretza: gaitasunez eta tresnez hornitzea, helburu hauek lortzeko:

- Jakitea zein den ikasle bakoitzak bere buruaz duen kontzeptua, zeintzuk diren beraren interesak, zer den adierazgarria beraren bizitzan ...
- Banakako elkarrizketak egin ikasleekin, familiarekin, beste profesional batzuekin ...

1.2.- Taldekako tutoretza: gaitasunez eta tresnez hornitzea, helburu hauek lortzeko:

- Talde-dinamikak egitea.
- Soziogramak egitea.
- Taldekidetza lantzea

1.3.- Familiarekin eta beste profesional batzuekin lan egitea: gaitasunez eta tresnez hornitzea, helburu hauek lortzeko:

- Feedback positiboa lortzea, ikasle bakoitzarengan eragina duten familiarekin eta beste profesional batzuekin egiten den komunikazioan.

## **2.- Ikasgelaren komunikazio demokratikoa**

Gaitasunez eta tresnez hornitzea, helburu hauek lortzeko:

- Ikasleen parte-hartzea ahalbidetzea.
- Ikastalde berean eragina duten irakasle guztiekin era koordinatuan lan egitea.
- Beste eragile batzuen partaidetza motibatzea (familiakoak, boluntarioak, beste profesional batzuk, inguruko beste pertsona batzuk ... )

## **3.- Proiektuka lan egitea (programazio didaktikoa)**

Gaitasunez eta tresnez hornitzea, helburu hauek lortzeko:

- Proiektuka lan egiteko proposamen didaktikoa diseinatzea, ikasleen interesei erantzuteko eta esparru desberdinak (ikaskuntza/arloak/ikasgaiak) integratzeko.
- Ikaskuntzaren alorreko helburuak formulatzea eta helburuen lorpen-maila egiaztatzeke ebaluazio- adieraleak ere bai.
- Ebaluazioa egiteko tresnak diseinatzea, ikasleen aniztasuna, eta ebaluaziomota desberdinak (hasierakoa, jarraitua, eta batuketa egilea, eta autoebaluazioa eta koebaluazioa) aintzat hartuko dituztenak.

## 4.- BESTE OHAR / LAGUNTZA BATZUK

### **Bibliografia**

### **Laguntza-dokumentuak**

### 3.- ERANSKINAK

I. eranskina: ikaslearekiko arreta eta jarraipenerako fitxa.  
Ikasgelarako irekita dagoen tresna da.

<b>Adierazle egokienak hautatu</b>	<b>Bai</b>	<b>Ez</b>	<b>Irakas- proposamena</b>
Hasitako jarduerak bukatzen ditu (Hasi-Segi-Bukatu)			
Esaten zaiona entzun, aditu eta ulertu egiten du			
Ikasgelan pozik eta oso motibatuta dago			
Familiarekin elkarlana egiten da			
Helduekiko (irakasleekiko eta gurasoekiko)menpekotasuna handia da			
Ezinbestekoa du behin eta berriro besteren arreta			
Gauzak apurtu eta suntsitzen ditu			
Beste ikaslagun batzuk gogaitu egiten ditu. Ika-mikarako joera handia. Klaseko diziplina hausten du			
Erronka jartzen du, gaizki erantzuten du			
Bere burua baztertzen du, ez da beste ikaslagun batzuekin nahasten. Besterekin mintzatzeko inibitu egiten da. Ezgauza edo beheragoko mailako sentitzen da. Balioa kentzen dio bere buruari.			
Oldarkorra da; pentsatu gabe eta bestea garaitu asmoz jokutzen du. Izaera hiperaktiboa du.			
Urduria da eta urduri edo zurrun bezala agertzen da			
Arazo fisikoak ditu eta mina, arrazoi medikorik izan gabe			
Apatiko eta motibatu gabe sentitzen da			
Berdinekin komunikatzeko arazoak ditu. Besterekin mintzatzeko inibitu egiten da.			
Doakabe, triste eta deprimitu bezala agertzen da			



Ez du ikastetxera etorri nahi. Tutorearekiko, irakasleekiko, ikastetxearekiko afinitaterik ez du.			
Arazo fisiko eta medikoak daude eta azpimarratzekoak dira			
Etxean dagoen giroa ez da motibatzailea eskolako lanak egiteko.			
Familia-giroan desegituraketa eta antolaketa txarra ikusten da, ikaskuntza galarazten dutenak			
Beste batzuk.....			

Ikaslea:..... Adina:..... ... Jarraipenaren data::

**Erantzuteko beste alternatiba batzuk hautatu, tratatzeko proposamenekin batera, curriculumaren garapenari eta ingurugiro sozioedukatiiboari begira:**

- 1) Gaitasun-maila funtsezko curriculum-arloetan:
- 2) Adierazi zein diren gurasoen jarreraren ezaugarri nagusiak eskolari dagokionez:

**ERREFERENTZIAK:**

Aniztasunari erantzuteko Plana prestatzeko gida.

- Gakoak “ “ “ “ “
- Estrategiak ...